

2014-04-29ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2014ko apirilaren 29an, arratsaldeko 7:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu, Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, Korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-BERTARATUAK:

Bildu Udal-taldekoak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Tomás Etxeberria Sarasola.

-EZ BERTARATUAK:

Bildu Udal-Taldekoak: Josu Yurrita Loitegui, Gorka Murua Macuso.
EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek, Udaleko idazkariak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-03-24).

2014ko martxoaren 24ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO MARTXOAREN 24TIK 2014KO APIRILAREN 25RA (48/2014-59/2014)..-

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:
2014ko 48 zenbakitik 59 zenbakira bitartekoak.
Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

EUROPAKO LEGEBILTZARRA HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

Hauteskunde Araudiko 26. artikulua araberan, herri honetako Hauteskunde Mahaietako kideak hautatzeko jendaurreko zozketa egin da 2014ko Europako Hauteskundeetarako. Honela geratu da:

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 26 de la legislación electoral, se procede a realizar el sorteo público de los miembros de las Mesas Electorales de este municipio para las Elecciones Europeas de 2014, siendo estos los siguientes:

CARGO EN LA MESA-MAHAIKO KARGUA TITULARES / TITULARRAK: Jn./ And	1º APELLIDO 1. ABIZENA	2º APELLIDO 2. ABIZENA	NOMBRE IZENA
PRESIDENTE/A: D/D ^a MAHAIBURUA: Jn./ And	ARANALDE	ARAMBURU	ION IÑAKI
1º VOCAL: D/D ^a 1. MAHAIKIDEA: Jn./ And	ABASOLO	SAINZ-EZQUERRA	UNAI
2º VOCAL: D/D ^a 2. MAHAIKIDEA: Jn./ And.	OTXOA	ARROSPIDE	MIKEL
SUPLENTES / ORDEZKOAK 1º DE PRESIDENTE/A: D/D ^a 1. MAHAIBURUAREN 1.a : Jn./ And	BEGUIRISTAIN	URIARTE	ITZIAR
2º DE PRESIDENTE/A: D/D ^a 2. MAHAIBURUAREN 2.a: Jn./ And	ULACIA	UGARTEMENDIA	NEREA
1º DE 1º VOCAL: D/D ^a 1. MAHAIKIDEAREN 1. ORD.: Jn./And	OLANO	IRIARTE	ENERITZ
2º DE 1º VOCAL: D/D ^a 1. MAHAIKIDEAREN 2. ORD.: Jn./And	AIZPURUA	ZUBELDIA	MYRIAM
1º DE 2º VOCAL: D/D ^a 2. MAHAIKIDEAREN 1. ORD.: Jn./And	CARTAGENA	BLANCO	IBAN
2º DE 2º VOCAL: D/D ^a 2. MAHAIKIDEAREN 2. ORD.: Jn./And	SORONDO	AGIRREZABALAGA	M. DEL SAGRARIO

LAUGARREN GAIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, EZINDUEN ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO, HALA BADAGOKIO.

2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera, etxeko laguntza arretako gizarte zerbitzu bat da (22.1 art.) eta udalen eskumena da hura eskaintzea. Zerbitzu hau etxeko laguntza zerbitzua eta prebentzio zerbitzu bat da eta helburu du mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoenari laguntza ematea, hartara etxean egon dadin.

2012. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak "Gipuzkoako Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana 2013-2016" onartu zuen eta dokumentuak proposatzen du Foru Aldundiak bere gain hartzea, urratsez urrats, udal egoitzak eta laguntzaren zerbitzuaren finantzazioa gutxitzea neurri berean.

Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak egoki ikusten du lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea udalekin, Etxeko Laguntzaren Zerbitzuaren xedea, tarifak eta finantzazioa egokitzeko eta 2005an onartutakoa ordezkatzeko.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak gaur egindako bileran, aldeko proposamena egin du.

Hori ikusita eta, aho batez, udalbatzak honako hau

ERABAKI DU:

Lehena.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Irurako Udalaren arteko hitzarmena onartzea, ezinduen etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeari buruzkoa.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari, Ainhoa Ugalde Gorostiaga, ahalmena ematea aipatu hitzarmena Irurako Udalaren izenean eta honen ordezkari gisa sinatzeko.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea.

BOSGARREN GAIA

2013 URTEKO 2. KREDITUAREN ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honen 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren 2. Kreditu aldaketaren (2/2013) eta likidazioaren osagarriaren berri eman da.

Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 2/2013, complementario de la aprobación de la liquidación del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2013.

Idazkari-Kontuhartzailearen

Visto el informe del Secretario-Interventor.

txostena ikusita.

Era berean, gaurko bileran Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioako batzorde informatiboaren aldeko erabakia ikusita.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Cuentas Generales, Presupuesto y Administración en reunión celebrada el día de hoy.

Hori ikusita udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

Ante ello, el Pleno por unanimidad de los presentes:

ERABAKIA

ACUERDA

Lehena.-Behin behineko izaeraz onartzea 2/2013 kreditu-aldaketaren espedientea, 2013ko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuaren likidazioaren onarpenaren osagarri. Horrek honako laburpena du:

Primero.-La aprobación provisional del Expediente de Modificación de CRéditos nº2 del Presupuesto del ejercicio económico de 2013 , complementario a la liquidación del mismo y con el siguiente resumen:

A) GASTUEN HEDAPENA: +167.599,13 €.

A.1.- 2012KO KREDITU-SOBERAKINEN ERANSKETA + 136.599,13 €.

-2. kapitulua: + 9.012,01 €
-4. kapitulua: + 3.187,48 €
-6. kapitulua: + 124.399,64 €

A.2.-2013KO KREDITU OSAGARRIAK: + 31.000€

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Handitzea	Gutzizkoa.
-2. kapitulua.	520.000 €	+ 11.000 €	531.000 €

*Partida 221.440	55.500 €	+ 11.000 €	66.500 €
------------------	----------	------------	----------

-6. kapitulua	401.500 €	+ 20.000 €	415.500 €
---------------	-----------	------------	-----------

*Partida 622.450	112.500 €	+ 16.500 €	129.000 €
------------------	-----------	------------	-----------

*Partida 625.430	4.000 €	+ 3.500 €	7.500 €
------------------	---------	-----------	---------

B.)-FINANTZAKETA: 167.600 €

B.1.-2012KO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINAK: 167.600 €

B.1.A .-KREDITU OSAGARRIEN FINANTZAKETAREN APLIKAZIOA:31.000€

Kontzeptua	Egungo zenbatekoa	Handitzea	Guztizkoa.
870.01.	50.300€	31.000€	81.300€

B.2 KREDITU-TXERTAKETAREN FINANTZAKETAREN
 APLIKAZIOA :136.600 €

Kontzeptua	Egungo zenbatekoa	Handitzea	Guztizkoa.
870.02	0€	136.600€	136.600€

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegunetako epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Asi mismo se dedera publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren betetzeari buruzko txosten bat atxikitzen da eta, ondorioz, Udaltzari honako komunikazioa egiten da:

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

2013ko aurrekontuaren barruko kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak ez du defizitaren helburua betetzen eta finantza-gastuen muga gainditzen du, beraz ez du gastuen erregela betetzen.

-Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 2 dentro del Presupuesto de 2013 no cumple con el objetivo de deficit y supera el límite de gasto no financiero, por lo que no cumple tampoco la regla de gasto.

Beraz, 2/2012 Lege Organikoaren, apirilaren

-Que en consecuencia con el art. 21 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de

27koaren, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoaren 21. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Udala behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako "2013ko aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibide"-aren arabera, arauak betetzen ez badira diruzaintzako soberakinak erabiltzeagatik, espediente honetan bezala, 1/2013 Foru Arauko 5. Artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egiten da: zirkunstantzia hori adierazten da eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzaren Udalaren finantza-iraunkortasuna aztertzen eta ebaluatzen duen txostena atxikitzen da.

abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, el Ayuntamiento está obligado a aprobar un Plan Económico Financiero.

-Sin embargo y de acuerdo con lo dispuesto en la Instrucción aprobada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para la aprobación de los Presupuestos de las Entidades Locales para 2013, en el caso de no cumplimiento de las normas citadas por utilización del Remanente de Tesorería, como es en este expediente, y de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo tercero del art. 5 de la Norma Foral 1/2013, se realiza la siguiente comunicación: Se manifiesta la circunstancia citada y se adjunta un informe de Secretaria-Intervención en el que se analiza y evalúa la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento.

SEIGARREN GAIA

2013. URTEKO IRURAKO UDALEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARPENAREN KONTUA EMATEA.

Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2013ko Aurrekontuaren likidazioa nahiz eta oinarrizko datuak finkatuta dauden, ez dagoela bukatuta.

Hori ikusita, mahairen gainean uzten da.

ZAZPIGARREN GAIA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A. ENPRESARI BURUZ AKORDIOAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udala Tolosaldea Garatzen S.A.ko akzioduna da. Tolosaldeako udalak dira elkarte honen jabe bere osotasunean. Elkarte

Este Ayuntamiento de Irura, es accionista de la Sociedad Pública Comarcal Tolosaldea Garatzen S.A., propiedad al 100 por 100 de los municipios de la Comarca de Tolosaldea. Dicha Sociedad quiere modificar

horrek estatutu sozialaren 7. artikulua aldatu nahi du, akzioen parte-hartzea funtsean, irizpide berrien arabera.

Horien arabera, Irurako Udalak % 2,2ko akzio parte-hartzea izatetik % 3,52 izatera pasako da.

Ondorioz eta akordio-proposamena nahiz dagozkien txostenak ikusita.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioko Batzorde Informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur egindako bileran.

Eta ondorioz, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1.- Ukoa adieraztea Kapital Sozietateen Legearen 304. artikuluan aurreikusitako lehentasunezko eskuratzearen eskubidearen ekitaldiari, administrazio organoaren 2014/03/13ko txostenean proposatutako kapital sozialaren handitzeari dagokionez. Honek SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EUROko (6.283,00 €) guztizko zenbatekoa du, bakoitzak 0,1 euroko balio nominala izango duen 62.830 akzio berrien jaulkipenaren bidez.

2.- Alkate-lehendakaria den Ainhoa Ugalde Gorostiagari ahalduntzea datorren maiatzaren 12an ospatuko den elkartearen akziodunen junta orokorrera joateko, bertan

el art. 7 de sus Estatutos Sociales, modificando básicamente su participación accionarial, en función de nuevos criterios.

De acuerdo con los mismos este Ayuntamiento de Irura, pasará de una participación accionarial del 2,2% al 3,52%.

Ante ello vista la propuesta de acuerdo y los informes pertinentes.

Así mismo, la Comisión Informativa de Cuenta General, Presupuesto y Administración, en reunión celebrada el día de hoy, ha aprobado dictamen favorable.

Ante ello, el Pleno, por unanimidad de los presentes,

ACUERDA:

1º.- Declarar la renuncia al ejercicio del derecho de adquisición preferente previsto en el art. 304 de la Ley de Sociedad de Capital, respecto al aumento de capital social propuesto por el Organo de Administración en su informe de fecha 13/03/2014, por un importe total de SEIS MIL DOSCIENTOS OCHENTA Y TRES EUROS (6.283,00€), mediante la emisión de 62.830 nuevas acciones de 0,1 euros de valor nominal cada una de ellas.

2º.-Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente D^a. Ainhoa Ugalde Gorostiaga para que acuda a la Junta General de Accionistas de la sociedad que se celebrará el próximo 12 de mayo de 2014, tomando los acuerdos oportunos al objeto de asumir y

beharrezko akordioak har daitezen guztira 829 euroko balio nominala izango duten 8.290 akzio berri onartu eta izenpetu daitezen, administrazio-organoaren 2014/03/13ko txostenean proposatutako kapital sozialaren handitzeari dagokionez. Honek SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EUROko (6.283,00 €) guztizko zenbatekoa du, bakoitzak 0,1 euroko balio nominala izango duen 62.830 akzio berrien jaulkipenaren bidez.”

suscribir 8.290 nuevas acciones por su valor nominal conjunta de 829 euros, respecto al aumento de capital social propuesto por el Organo de Administración en un informe de fecha 13/03/2014, por un importe total de SEIS MIL DOSCIENTAS OCHENTA Y TRES EUROS (6.283,00€), mediante la emisión de 62.830 nuevas acciones de 0,1 euros de valor nominal cada una de ellas.

ZORTZIGARREN GAIA

TOLOSALDEA ESKUALDEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOETARAKO FUNTSA OSATZEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldea Garatzen garapen agentziak 1994tik hainbat zerbitzu bideratzen ditu eskualdeko udal guztien izenean: enpresa ekimen berriei babesa, langabetuei arreta, enpresen lehiakortasunaren sustapena, turismoaren dinamizazioa eta sustapena, merkataritzaren dinamizazioa, migrazioaren fenomenoaren kudeaketa,...

- Agentzia sortu zenean, zerbitzu hauek bideratu ahal izateko finantzazio eredua diseinatu zen, aurrekontuaren laurden bat udalek beraien kargu hartuz eta gainerakoa eskumendun erakundeen programetan lehiatuz lortzeko erronkarekin (GFA, EJ, Madril, Europar Funtsa,...).

- Finantzazio eredu horrek orain arte funtzionatu du eta oraindik ere badirau. Nolanahi ere, azken urteotan agerian gelditu da bere mugak ere badituela eta gaur ezinezkoa da jarduera arrunteko baliabideen kondarrekin proiektu estrategikoak bideratzea.

2013an abian jarri da eskualdeko parte hartze sistema iraunkor eta integrala diseinatzeko prozesua, Tolosaldea Saretzen izena hartu duena, eta eskualdeko eragile sozial eta ekonomikoak tokiko garapenean inplikatu eta parte hartzera bultzatzeko balio behar du.

- Hori guztia ikusirik, 2012ko abenduaren 4ko Batzar Orokorrean etorkizuneko proiektu estrategikoetarako diru funts berri bat sortu eta elikatzeko modu desberdinak aztertzeko helburuarekin batzorde bat osatzea erabaki zen Tolosaldea Garatzeneko zenbait ordezkari osatuta (Abaltzisketa, Berastegi, Ibarra, Tolosa eta Villabona) eta batzorde horrek prestatutakoa proposamenaren baitan, urriaren 14an ospatutako Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluan eskualdeko 28 udalei honako proposamena egiteko erabakia hartu zen aho batez.

Tolosaldeko Proiektu Estrategikotarako Funtsa

Eskualdeko proiektu estrategikoak finantzatzeko balioko duen funtsa ekonomiko bat sortzea proposatzen da honenbestez, gure ibilbidea eta etorkizuna goragoko erakunde eskumendunen eskutan erabat utzi beharrik ez izateko, eta bertatik bertara identifikatzen ditugun erronka eta aukeren aurrean azkarrago eta eraginkorrago jarduteko.

Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluaren proposamena ikusita.

Idazkari-kontuhartzailen txostena ikusita, ondorengo da

ERABAKIA:

1.- Irurako Udalak Eskualdeko Proiektu Estrategikotarako Funtsa sortzeko ekimenarekin bat egin dezala, eta bera babestu eta ekonomikoki hornitzeko konpromisoa har dezala, Tolosaldearako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bideragarri bihurtzeko baliabide berri bat sortuz eta horrela eskualdera, eta ondorioz, Irurako udalerrira ere, enplegua eta aberastasuna sustatzeko bide berriak irekiz.

2.- Eskualdeko Proiektu Estrategikotarako Funtsa hornitzeko 2014, 2015, 2016 eta 2017ko aurrekontuetan aurreikus dezala partida ekonomiko berezi bat, Tolosaldea Garatzen bideratutako diru laguntza bidez. Partida ekonomiko hori, Irurako Udalak hurrenez hurren 2013, 2014, 2015 eta 2016 ekitaldietan Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga kontzeptupean kobratutako kopuru totalaren %10a izango litzateke.

3.- Ondorioz, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

-Irurako Udalak Tolosaldea Saretzen eskualde mailako parte hartze sistema iraunkor eta integralean aktiboki parte hartzeko konpromisoa har dezala, eta herri mailan ikuspegi sozial eta ekonomiko batetik garapena sustatzeko lagungarri izan daitezkeen eragileak bertara erakartzeko ahalegina egin dezala, Eskualdeko Proiektu Estrategikoetarako Funtsaren erabilpenari zilegitasun eta eraginkortasun handiagoa emanez.

BEDERATZIGARREN GAIA

TOLOMENDI ELKARTEARI 2014RAKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udala Tolosaldeako Landa Garapen Elkartearen (Tolomendi) kide da eta 2014ko apirilaren 15ean Tolosan egindako urteko Batzar Orokorrean 2014. urterako elkartearen aurrekontua onartu zen eta Irurako Udalari 2.720,59 € ordaintzea dagokio, Elkartearen funtzionamendurako.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

AKORDIOA

- 1.-2014ko ekarpena onartzea eta ordaintzea.
- 2.-Erabakia interesatuari jakinaraztea.

HAMARGARREN GAIA

ESPETXE ZIGORRAK ORDEZKATZEKO IRURAKO HERRIAREN ALDE EGINEZ ARAUDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoaren bidez, neurri penalen sistema aldatu zen eta, bestek beste, gizartearentzako lan egiteko zigorrak sartu ziren, zeinak estatu, autonomia, edo bertako administrazioak emana izango den.

Horren aurrean eta zigor honekin zigortuak izan daitezkeen Irurako biztanleen mesedetan, Udal honek udal-zerbitzuetan berau betetzeko aukera eman nahi du.

Ondorioz, Udalbatzak, aho batez, ondorengo onartu du:

Lehen.- Gizartearentzako lan egiteko zigorra betetzea laguntzea Irurako Udalaren zerbitzu publikoetan, dagokion espetxe-administrazioarekin elkarlanean.

Bigarrena.- Dagokion Araudia onartzea hasiera batean.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun baliaduneko epeaz, gutxienez, iradokizunak eta erreklamazioak jarri ahal izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bitartez.

Laugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik ez badago, behin betiko onartuko da eta Gipuzkoako

La Ley Orgánica 5/2010, de 22 de junio, modificó el sistema de medidas penales y entre otras introdujo la de penas de trabajo en beneficio de la comunidad, que será facilitado por la Administración estatal, autonómica o local.

Ante ello y en beneficio de los vecinos de Irura, que puedan ser penados con la misma, este Ayuntamiento quiere facilitar el cumplimiento de la misma en los servicios públicos municipales.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

Primero.- Facilitar el cumplimiento de la pena de trabajos en beneficio de la comunidad, en los servicios públicos de este Ayuntamiento de Irura y en colaboración con la administración penitenciaria correspondiente.

Segundo.- Aprobar inicialmente el Reglamento correspondiente.

Tercero.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 30 días hábiles, para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Cuarto.- En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo se entenderá aprobado definitiva y se publicará el texto completo del mismo en el

Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da, eta Ordenantzaren testu bateratua argitaratuko da.

Boletín Oficial de Gipuzkoa. En este sentido se publicará el texto refundido de la Ordenanza.

Bosgarrena.- Alkate-
Lehendakariari, Ainhoa Ugalde
Gorostiagari, ahalmena ematea
edozein egintza edo gestio egiteko
helburu horrekin.

Quinto.- Facultar a la Sra. Alcalde-
Presidente Ainhoa Ugalde Gorostiaga, a
realizar cualesquiera actos o gestiones con
dicha finalidad.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute batzarkideek aho batez, hauek, Udaltzarrean, partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

HAMAIKAGARREN GAIA

2014ko ABERRI EGUNERAKO UDALBILTZAK PROPOSATUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkezten da:

“Euskal Herritarrek gara eta ozenki adierazi nahi dugu”

Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi Euskal Herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratorzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herria osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gainetik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Erkidegoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua,

1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herriko 1998. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo “gure esku dago” bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, Irurako herriko Udalak Aberri Egunerako ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrak garelara adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta -batez ere- etorkizunari erreparatu nahi diogunez gero, kultur, hizkuntz eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librean oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Erabakitze eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, “*Gure esku dago*” herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, “*Gure esku dago*” herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu.

Euskal Herrian 2014ko apirilaren 29an”

Udalbatzak aho batez onartu du.

HAMABIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:30ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA